

Deustuko Unibertsitatea eta Eusko Jaurlaritz  
 Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Bizkaera 1, 2, 3  
 Bilbo, 1992  
 I.S.B.N.: 84-7485-263-3, 84-7485-264-1 y 84-7485-265-X

Mitxelenak 1964an honelako gauzak idatzi zituen: “El príncipe Luis Luciano Bonaparte, precursor de la dialectología moderna, es casi una culminación de la dialectología vasca, pues en varios aspectos nos hemos contentado desde entonces de vivir de su copiosa herencia que en buena parte —en aquélla, nada despreciable, que sigue inédita— no ha sido después debidamente utilizada... Prescindiendo de otros trabajos que en este contexto tienen menos importancia, se puede decir que su atención se dirigió a la recogida, preparación y edición de materiales de dos clases, Están en primer lugar los que él mismo recogió bien *in situ* o bien de informadores locales que reunía en el lugar donde se encontraba. En segundo lugar, se trata de versiones de textos de carácter generalmente religioso (libros o pasajes bíblicos, catecismos), cuya traducción encargaba, con instrucciones muy precisas para que la versión fuera reflejo fiel del habla de una localidad o comarca, a personas (rara vez seglares) a quienes creía buenos conocedores de esa variedad y capaces, sobre todo, de seguir al pie de la letra sus indicaciones...

Hay que señalar, sin embargo, que el Príncipe (el más vascófilo de los vascólogos, como se le ha llamado alguna vez, no sin razón) se ocupó casi por igual de los dialectos literarios y de las variedades no cultivadas de la lengua, para emplear su propia terminología...

Era un observador casi perfecto, capaz de tomarse las molestias necesarias para comprobar puntualmente el más pequeño detalle, sin que jamás permitiera que un prejuicio —eso que con nombre más elegante se suele llamar teoría— se interpusiera entre él y los hechos: en este sentido es, no cabe duda, el autor más digno de confianza de cuantos han trabajado en el campo vasco...

Por ello se propuso como coronación de la obra de toda su vida la delimitación de los dialectos vascos, con sus subdialectos y variedades, delimitación que obtuvo una magnífica expresión gráfica en las dos versiones de su famoso mapa (1863) el cual se atiene al pie de la letra a ese principio. (Ikus Mitxelena, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, 24-26 orri.).

Aipamen berezi honek Bonaparteren lana bere tokian kokatzen du. Eta aurrean ditudan hiru liburu hauek Mitxelenak azpimarratzen zuen hutsune nabarmena betetzen dute. Argitaratu gabe zeudenak, argitaratu egin ditu Rosa Miren Pagolak lan talde batekin. Talde horretako beste partaideak Sofía González, Itziar Iribar, Juan José Iribar eta Agurtzane Mallona, dira.

Testu hauek oso interesgarriak dira 1860tik 1890ra arteko urteetan euskara eta euskalkiak nola zeuden ezagutzeko. Lan honek bada, interes handia du. Baina zergatik egon dira hainbeste denpora argitaratu gabe?. Ebrotik harantz joango gara errudun bila orain ere?. Zer egin dugu hemen argitara gabe uzteko paper horiek?. Estatu Batuetan eta bazterretan zehar dauden euskarazko paperak ere zergatik joan dira hemendik kanpora?

Bonapartek Europan zehar euskararekiko interesa sortu zuen. Eta hor dagoela uste dut, gero han, hor, hemen ireki diran euskara ikasteko eta aztertze gogoaren iturri nagusiak. Beste askotan bezala atzerritar batek ireki dizkigu bideak. Ez dakit etxekook zenbateraino jarraitu ditugun.

Bonaparteren biografia on bat ere falta zaigu. Eta hori ere ez da baten edo bestearen hutsa. Euskaldunon ardurua da. Ezin dugu esan urliak edo sandiak errua duenik. Eta benetan gauza bat lortu nahi denean bilatzen dira bitartekoak.

Kasu honetan, ere horrela gertatu da. Larregi itxaron dugun arren azkenean lortu dira bi-tartekoak. Azkenean Deustuko unibertsitatean irakasle den Rosa Miren Pagolaren egitasmoa onartua izan da. Zuzendari honek prestakuntza, jakituria eta euskalkien ezagupideaz gain beste zerbait ere bazuen. Eta zerbait horri gure artean garrantzi gehiegi ematen zaio. Baina lan ederra atera da. Kasu honetan egitasmoa benetan interesgarria izan da eta zuzentzen duen irakaslea ere gai horretan aitua, beste baldintza horiek kontuan hartu gabe. Eta lan bikaina dugu eskuartean.

Liburu mardul hauetara hurbilduko gara orain. Hiru tomo dira. Lehengoan sarrera, testuen edizioa, bizkaieraren ekialdeko azpieuskalkiaren eta mendebaldeko azpieuskalkiaren testu batzuk ere badaude. Bigarrenean, mendebaldeko azpieuskalkiko beste testu mordo bat eta Gipuzkoako azpieuskalkiko testu luze bat. Eta hirugarrenean, Gipuzkoako bizkaieraren azpieuskalkiko gainontzeko testuak eta testuen analisisa.

Ikusten den bezala, lanik gehienak argitaratu gabe zeuden. Eta beste txiki batzuk, edo Bonapartek berak argitaratuta zeuden, edo geroago norbaitek, baina beti sakabanatuta. Orain Bonapartek berak argitaratuak eta lortu ezinezkoak zirenak, eta sakabanatuta zeuden beste batzuk argitara gabe, guztiak hemen bilduta ditugu. Erabiltzeko erreztasun handia ematen dio ikerlariari. Beste alderdi on bar, hau.

Esate baterako Bonapartek berak argitaratu zuen “San Juan apostolubaren Apocalipsis edo Aguertueria”, 3. tomoan 847. orrialdea eta hurre. Edo Alzolak argitaratutako eskutitz bat, 3. tomoan, 925. orrialdean. Edo Delmasek argitaratutako poesia bat, 3. tomoan, 933. orrialdean, tabar. Horrela bada Bonaparteren bizkaierazko paperak ez ezik, paper horiekin ibili diranak ere errez ezagutzen dira lan honetan.

Testuen aurkezpenari buruz nahiko fidagarriak direla esan beharra dago. Alde batetik huts gutxi daude, eta hau azpimarratzekoa da euskal testu zahar samarretan. Bestalde argitaratuta daudenean, erkatu egiten ditu argitaratzaile honek bere irakurketa eta aurreko argitalpeneko irakurketa. Eta horretarako oharrak barra-barra agertzen dira orrialdeetan zehar. Eta erkaketa hori lortu ezin duenean, aipatu egiten du, 1. tomoan, 262. orrialdean egiten duen bezala.

Hutsune txiki batzuk aipatzeko, benetan huskeriak direnak horrelako lan mardul batean bi edo bilatu ditut. I, 262. orrialdean oharrean aipatzen den liburuaren izenburua azpimarratu gabe dago. Eta III, 840. orrialdean, 1958 jarri ordez, 1858 izango dela uste dut. Gero “Yspas-terreko errefraua” I, 177 orrialdeko eskuizkribuan Urquijoren ohar txiki bat ere sartu daiteke. “Son los refranes que el Sr. Azkue atribuye a Uriarte en su *Diccionario*, por haber creído era de este autor el manuscrito en el que aparecen. En otro tomo de *El Refranero Vasco* trataré de esta cuestión, (Ikus Urquijo, *Los Refranes de Garibay*, I, LIII).

Lana borobiltzeko III tomoan testuen analisisa egiten du. Grafia, maila fonikoa, maila morfologikoa, Sintaxia eta Lexikoa aztertzen ditu. Horrela bizkaieraren egiturak ezagutzeko ere gida liburu ona gertatzen zaigu lan hau.

Lan bikaina dela esan behar zalantzarik gabe. Egileak asmatu du eta bitartekoak jarri dituztenek ere asmatu dute oraingo honetan. Eta poliki poliki beste euskalkietako testuak ere argitaratuko dituztelakoan zai egongo dira hainbat euskaltzale. Batez ere euskalkiak euskaldunon nortasun desberdinaren adierazle eta euskararen aberastasun bat bezala ikusten ditugunok. Euskalkiak ez dira zerbait arkaiko eta modernitatearen kontra dagoena. Gure nortasun desberdinaren adierazle argiak dira eta sustrai sakonak. Zaindu eta landu egin beharko ditugu, geroa sendo eraiki nahi badugu.

Gure auzora begira ere honelako lanek zerbait badute. Ez dira “etnozentrismoa” direla eta bertan behera uztekoak. Euskararen eta neurri batean, beste hizkuntza berezi samarren egiturak ezagutzeko lagungarri gerta daitezke, guretzat eta kanpokoentzat.

J. M.<sup>a</sup> Etxebarria

ESTEBAN, Marisol y VELASCO, Roberto  
Diversificación industrial: un reto para el País Vasco  
Círculo de Empresarios Vascos, 1993

La impresión general que deja la fácil y ágil lectura de este libro, compacto y urgente, es de una síntesis equilibrada de sólidos fundamentos teóricos y un gran conocimiento empírico de la realidad estudiada.

El objetivo del estudio pretende ser eminentemente práctico y sugerir métodos y trayectorias de solución a los graves problemas de declive industrial que sufre el País Vasco. Será por lo tanto objeto de este comentario analizar hasta qué punto se logra este objetivo.

A mi entender la virtud más destacada del libro es que nos ofrece un diagnóstico serio y documentado de la realidad industrial vasca, que no cansa con un exceso de estadísticas, y nos ahorra además la lectura de muchos informes y libros especializados, que se encuentran en sus páginas sintetizadas y analizados con rigor e inteligencia.

Quizás por primar ante todo el esfuerzo por ser concisos y pragmáticos los autores han enfatizado más el diagnóstico del problema en su estado actual que el análisis de su génesis y de las fuerzas que lo han conformado.

En cualquier caso la causa central generadora del problema del declive industrial está claramente situada:

*“...las teorías más actuales de la economía regional sostienen que la raíz del problema del declive se encuentra en la incapacidad de estas regiones para abandonar productos y sectores que están en las últimas fases de su ciclo de vida e incorporar nuevas actividades económicas que absorben los excedentes de mano de obra que están siendo expulsados de los sectores tradicionales.”<sup>1</sup>*

La respuesta al declive industrial que proponen los autores es el diseño e implementación de una *estrategia de diversificación industrial* para el País Vasco.

Normalmente este tipo de trabajos una vez que han analizado el problema y han dado una respuesta global, pasan de puntillas sobre las barreras a las estrategias de diversificación y se cuidan de aportar oportunidades concretas y posibles para lograr el objetivo deseado. Sin llegar a ser una excepción a la regla, los autores “dan la cara”, hasta cierto punto:

*“Para esto último habría que desviar la inercia inversora de País habitualmente aún a la fabricación y transformación de los productos metálicos, favoreciendo las inversiones en otros sectores, especialmente en los de tecnología avanzada y mayor valor añadido por persona empleada. A la industria vasca le ha llegado también la hora del cambio y debe aprovechar*

---

1. Pág. 17